



ARAUTEGIA

MAHAI TENISA 2014

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Mahai Teniseko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2014ko maiatzaren 31an Gasteizko Arriaga kiroldegian, (Araba). Hona hemen arautegia:

1- JOKATZEKO MODUA

TALDEKAKOA: Hiru multzotan banaturik liga bat jokatuko dute elkarren artean itzuli bakarrera. Talde bakoitzeko lehen biek final aurreak jokatuko dituzte eta haietako irabazleen artean jokatu da finala.

Partida bat irabazten duenak bi puntu lortuko ditu eta galtzaileak bat ere ez.

Sailkatzerako orduan taldeen artean berdinketa bat egongo balitz, elkarren artean izandako emaitza hartuko zen aintzat.

- Mutilen taldeak: SWAYTHLING SISTEMA MURRIZTUA (7 partidetatik gehien irabazten dituen)
- Nesken taldeak: CORBILLON (3 jokoko 5 partidetatik gehien irabazten dituen).

BANAKAKOA: Gehienez 16 partaide (jokoak antolatzen diren lurraldeko 6 partaide eta bostna beste lurraldeetakoak) ; 4 jokalariko taldeetan banaturik liga bat jokatuko dute elkarren artean, eta talde bakoitzeko lehen biak sailkatuko dira final laurdenetarako. Taldekako lehiaketako sistema bera erabiliko da puntuaziorako eta berdinketa kasuetarako.



2- TALDEEN OSAERA

Mutilen talde bakoitzak gehienez ere bost eta gutxienez hiru jokalaria izango ditu, eta nesken talde bakoitzak gehienez lau eta gutxienez bi jokalaria. Talde bakoitzak ordezkari bat edo entrenatzaile bat eramateko aukera izango du.

Binakako partidetan, nahi izanez gero, banaka aritu direnek ere parte har dezakete.

Partaide guztiak infantil mailakoak izan behar dira, 2000 eta 2001ean jaiotakoak.

Partidak kamiseta eta praka motz edo gonaz jantzita jokatu beharko dira, eta debekaturik dago txandaleko jaka edo prakekin jokatzea. Talde bereko jokalaria guztiek, gizonetako eta emakumezkoek, antzeko jantziak eraman behar dituzte, baina ezingo dute txuri eta laranja koloreetakoak eraman.

Jokalarien kirol lizentziak lehiaketako epaileari aurkeztu beharko zaizkio, foru aldundiak behar bezala zigilatuta eta lehia hasi aurretik.

3- PARTE HARTZE KUPOA

Taldeak ikastetxe berekoak izango dira, eta ikastetxeko ikasleez osatuak.

Probintzia bakoitzetik mutilen bi talde eta nesken beste bi izango dira taldekako lehiaketarako. Banakako lehiaketan 5 mutil eta 5 neska izango ditu probintzia bakoitzak, antolatzen duen lurraldeak aldiz 6 mutil eta 6 neska izango ditu.

Banakako lehiaketan parte hartuko duten ikasleak eta taldekakoan parte hartuko dutenak ez dute ikastetxe berdinekoak izan beharrik. Lurraldeko lehiaketetan lehenbizi sailkatu direnak hartuko dute banakakoan.

4- MATERIALA

Antolakuntzak 6-8 mahai homologatu jarriko ditu, baita pilota ofizialak ere.

Jokalarien erraketek egungo araudia bete beharko dute, eta ezingo da kolarik erabili.

5- SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

- Taldeka: lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuek garaikurrak jasoko dituzte.
- Banaka: urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak jasoko dituzte.

6. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeronahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

7- AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketaren diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Mahai Teniseko Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeron, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.